


MALLONA TA ASTIGARRAGA GOTZAIN EUSKALDUN BARRIAK

Pasiotarrak oraintsu izan dira aukeratuak Eleizeari Gotzain barri bi emoteko, bata giputza ta bestea bizkaitarra.

Biai buruz zerbait esan gura dogu gure ZER onetan.



*Iñaki
Mallona,
Gotzaiña*

Mallona'tar Iñaki, Fruniz'ko Botiola auzoan jaio zan. Orain 59 urte dirala, Puerto Rico'n dan Arecibo'ko gotzaina eta auzo onetan bigarren gotzaina da. Mallona'ren etxea dan Lezamiz'tik urrean dago Jauri baserria eta antxe jaio zan Moyobanba'n Gotzain dan Benantzio Orbe.


Fruniz erri aundia ez da, bosteun biztanle inguru, eta orantxe dagoz iru Gotzain bertako semeak: Orbe, Mallona eta guztiok ezagutzen dogun eta oraintsu Zamora'ra Gotzain joan jakun Juan Maria Uriarte.

Mallona Gotzaiña Puerto Rico'n izan da parrokiari lan egiten eta bertako Gotzain egin dabe. Erroma'n Jaunaren Agerkunde edo Erregeen egunean ipiñi dautsoz eskuak Aita Santuak berak, Gotzain izateko.

Izan dogu erea Iñaki Mallona'gaz alkar izketa egiteko, Fruniz'en bertan. Arduratuta dago zeregin aundi ori zelan beteko ete dauan eta apaltasunez esaten dau nori gogoratu ete jakon bera gotzain egitea.

Benetan ardura aundia eta erantzukizun aundikoa da artzen dauana eta ba-daukagu itxaropena lezamiztarrak bere bizia oso-osoan eskiñiko dauala orretera.

Gure aldetik, zorionak berari eta eskari bizi bat Jaungoiko AITA onari, bere seme au zaindu eta indartu dagian.



*José Luis
Astigarraga,
Gozzaiña*

Abenduaren amabian, Deustu'ko pasiotarren lekaide-etxean Astigarraga ta Lizarralde'tar Jose Luis, azkoitiarraren gotzaintza ospatu da (51 urtekoa).

Ospakizun onetan berari laguntzen beste gipuzkoar ospetsu bi izan dira: Irizar'tar Mikel Callao-Peru'ko Gotzaiña eta Orbegozo'tar Jose Agustin Pasiotarren Nagusi orokorra.

Gure Jose Luis Astigarraga Lizarralde 1940'an jaio zan eta bere etxeok orain Elgoibar'en bizi dira.

Gabiria Gipuzkoa'ko erritxuan egin eban batxiller ikastaldia eta Araba'ko Angosto'n lekaidetu zan, botoak egiñaz, 1956'an, dagonillaren 5'ean.

Tafalla'n eta Urretxu'n egin ebazan eleiz-ikasketak eta 1961'eko otsaillaren 2'an egin zan abade.

Gero Lauxeta Ikastola'n, Amorebietan, izan zan irakasle eta emen urte batzuk egin ondoren, Madrid'en gertatu zan Ameriketara joateko. Puerto Rico'ko Lares'en izan zan parrokiari laguntzaille eta gero Caribe'ko Lurraldean Ordezkarari.

Orain Yurimaguas (Peru)'ko gotzain izendatu dabe.